

Ordizian, 2017ko ekainaren 19an, udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Jon Ander Caballero.	EH BILDU
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2017ko ekainaren 5eko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 €tik beherako fakturak.
 - Margari Imaz
 - "Pauso Berriak" programa
 - Zeregin anitzeko langilearen ordezkapena
 - Urdanetako atezaina
- 4.- Galde-eskeak.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 17:20



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2017ko ekainaren 5eko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2017ko ekainaren 5eko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da akta.



2. – 6.000 €tik gorako fakturak

25 zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 48.155,45 €

Sukia And: ENDARAREN faktura baten inguruan galdetu du.

Alkate Jn: San Bartolomeko proiektuaren faktura dela esan dio.

Fakturei oniritzia eman zaie.

3.- Txostenak eta hainbat eskari.

.- 6000 €tik beherako fakturak.

24 zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 15.919,82 €

Fakturei oniritzia eman zaie.

.- Margari Imaz

Alkate Jn: Margari Imazekin eta bere abokatuarekin izandako bileraren berri eman du. Umetan izandako istripua azaldu du, Udalaren karro batek harrapatu zuen eta Udalari eskaera egin dio. Laguntza edo hileroko kalte-ordaina eskatzen du.

.- “Pauso Berriak” programa

Alkate Jn: ekainaren 26an Udalean dibertsitate funtzionala duen GUREAKeko pertsona bat hasiko dela azaldu du; 4 ordutara eta urtebeterako.

Datorren ostegunean hilak 22, 12etan Bilkura Aretoan “Pauso Berriak” programaren aurkezpena egingo da.

Hitzarmen bat sinatuko da horretarako.

.- Zeregin anitzeko langilearen ordezkapena

Idazkari And: Batzordeari azaldu dio Javier Irastorza zeregin anitzeko langilearen ordezkapenerako jarraitu den prozedura.

Zaldibiako Udalak orain dela gutxi, zeregin eta ezaugarri antzekoekin antolatutako prozeduraren ondorioz sortutako lan-poltsa erabili da.

.- Urdanetako atezaina

Idazkari And: Urdaneta Ikastetxeko atezainari zabaldutako diziplina espedientearen berri eman du. Berau ebatzi bitartean eta kontuan izanda espedientearen instrukzioaren bidez badaezpada aldi baterako funtzioak eten egin zaizkiola funtzionarioari, beharrezkoa da ordezkapena. Lorezaintzako poltsa bat dugu eta bertatik dei egin dezakegu. Honela egin.

.- Alkate jaunak adierazi du Urdaneta Eskolak eta Ikastolak LGTBI egunean (ekainak 28) parte hartzeko borondatea dutela eta ondorengo zebra-bideak 3 koloretan margotzea proposatu dute:

- Altamira-Estadio zebra-bidea
- Nafarroa Hiribidetik “Montañita” alderako zebra-bidea

.- Alkate jauna: HAPOri dagokionez, esleitu gabeko lan bakarra, HAPO idatzeko “aholkularitza juridikoa”rena dela esan du eta ez duela aurrekontuetan partidarik.

Datorren asteazkenean Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aipatuko duela esan du, hau da, gaia Osoko Bilkurara berreramango du Inbertsioen Akordioak puntuan.

○ Dubreuil jauna:

.- Gizarte Zerbitzuetako Memoria baduela esan du eta Gizarte Zerbitzuetako Estrategia Plana ere amaitzean dagoela. Alderdi politikoei aurkeztu nahi lieke.

.- Lazkaomendi kalean dauden bizikidetzaz arazoak berri eman du, etxe-aurre, zubi eta kristaletan pertsona batek egiten dituen pintadak direla eta. Zigorri ahal izateko, gaia aztertu beharko dela esan du.

.- Eusko Jaurlaritzak datorren egunetako bero-boladak direla eta emandako informazioa Gizarte Zerbitzu Sailera helarazi dadila eskatu du.

- Iturrioz jauna. Basque Culinary Centerrekin (Jose M^a Aizega) izandako bileraren berri eman du.

.....

4.- Galde-eskeak.

- Sukia andreak galdetu du:

1.- Trevijano zelaiko txakurren gaiari buruz. Alkate jaunak zer egingo den azaldu dio. Sukia andreak Ertzaintzan salaketa jarri duen galdetu du.

2.- Udalerriko Energia Plana

3.- San Bartolomeren birmoldaketak Udalarentzako kosturik dakarren. Alkateak baietz erantzun dio, zerbait. Aldi berean, proiektuaren inguruan bizilagunekin hitz egin den galdetu du. Alkateak baietz erantzun dio, ez bakarrik San Bartolomekoekin, baita eragina jasan dezaketen inguruko bizilagunekin ere.

4.- Udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren lehiaketa.
Udal langileekin zerbitzua ematea pentsatu den galdetu du.

.....

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta hori egiaztatzen dut.